

Lan-legepeko hezitzaileak eta irakasleak

**B
A
T
Z
O
R
D
E

P
A
R
E
K
I
D
E
A**

2014ko urriaren 31a

Bilera hau pasa den astekoaren jarraipena zen.

Bileraren gai ordena: 21 puntu agertzen ziren gai ordenean. Besteak beste, hurrengo hauek:

Jantokia, garraioa, errelebu kontratua, LPZ, ikasturte hasierako jarraibideak, mutuak, transkribatzaile lanpostua osatzeko irizpideak, keinu hizkuntza interpreteak... eta, azken puntua, bileren dinamika.

Bileraren iraunpena mugatua zenez (bi ordu eta erdikoa), guztiok kontzienteak ginen gai orden luze hori bere osotasunean tratatzea ezinezkoa izango zela. Eta horrela izan zen. Azkenean, lau gai baino ez ziren aztertu.

1. **HLE: Jantokia**

Honetan, lanaldi partzialetan bazkaltzeko denbora konputatzeko akordioa berriro mahai gainean jartzea eskatu zitzaion administrazioari. Hurrengo bilerara akordio bat aurkeztuko zutela erantzun zuten, baina... oso argi utzi zuten akordio horrek plantilaren handiagotzea suposatzen badu, ez zutela aplikatuko.

2. **HLE: Garraioa**

Puntu honen barruan aipatu ziren anklajeak, ratioak, gurea ez den beste berritzegune bateko garraioa egiteko beharra eta funtzio honen azterketa. Gai konplikatu zela baloratu ostean, mahai tekniko batean aztertzea erabaki zen. Beraz, gaiak irekita jarraitzen du.

3. Bileren dinamika

Garraioaren gaiaz hitz egitean, sektore honen mahaietan erabakiak hartzeko ezgaitasunari buruzko eztabaida sortu zen eta, horrek gai ordenean salto bat egitera behartu gintuen azken puntura pasatuz.

STEE-EILASetik sektore honen bileren dinamika edo prozedurari buelta bat emateko eskaera egin dugu hauen eraginkortasuna oso eskasa dela baiteritzogu. Gure ustez bi arrazoi nagusi daude horretarako:


- Eguneroko lanean planteatzen zaizkigun arazoei edo zalantzei inoiz ez zaie erantzunik edo konponbiderik ematen eta, horren ondorioz, behin eta berriz aztertzen ari gara gai berdinak inolako irtenbiderik topatzeko itxaropenik gabe. Bukle baten barruan sartuta bagina bezala.
- Gaien zerrenda gero eta luzeagoa da. Erantzunik gabe geratzen diren gaiei gehitu behar dizkiegu denborarekin sortzen diren berriak, aztertzeko gaien zerrenda infinituraino luzatuz eta bilera hauek bukaezinak bihurtuz.

Gure proposamenarekin ados azaldu ziren bai Administrazioa bai gainontzeko sindikatuak, eta aldaketa hori gauzatzeko lehenengo urratsak elkarrekin ematen hasiko gara jadanik.

4. HLE zerrendak

Ordezkapenak betetzeko ordezkogaiak aurkitzeko zailtasunak ematen ari direla ikusita, Hezkuntza Laguntzako Espezialisten zerrendak irekitzea eskatu genuen.

STEE-EILAS



ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	NAFARROA
Eulogio Serdán, 5. behea 01012 – Gasteiz Telf.: 945 14 1104 Email: araba@stee-eilas.org	Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu) 48003 – Bilbo Telf.: 94 410 02 98 Email: bizkaia@stee-eilas.org	Baso-txiki, 30-34 (atzekaldea) 20006 – Donostia Telf.: 943 46 60 00 gipuzkoa@stee-eilas.org	Joaquin Beunza, 4 - 6 31014 – Iruñea (Rochapea) Telf.: 948 21 23 55 nafarroa@stee-eilas.org